

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

5557

AGINDUA, 2024ko azaroaren 19koa, zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2025eko lehenengo seihilekoan kongresu eta bilera zientifikoak antolatzeko laguntzak emateko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren bidez, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntza Sailari esleitu zitzaion ikerketa teorikoa eta aplikatua bultzatu eta koordinatzeko lana.

Sail honen iritziz, egiten diren biltzarrak eta –beste arlo batzuen artean– bilera zientifikoak tresna egokiak dira ideia eta ezagupen zientifiko eta teknologiko aurreratuenak trukatzeko eta zabaltzeko, eta, oro har, zientzia ikusgarriago egiteko. Horregatik da interes handikoa Euskal Autonomia Erkidegoan horrelako jarduerak egiten laguntzea eta, batez ere, haien kalitate zientifikoa eta arrakasta bultzatzea, ospe handiko ikertzaile eta irakasle nazional eta atzeritarren partaidetzaren bitartez.

Horrelako jarduerak antolatzen laguntzeko, dirulaguntzak emateko kasuan kasuko sustapen-programa erabili da, honako hauetan xedatutakoaren arabera: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean adierazitako oinarritzko araudia, eta azken horren erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua.

2024ko bigarren seihilekoko ekitaldietarako egindako deialdiak ebatzi ondoren, egokia da jarraipena ematea Euskal Autonomia Erkidegoan ikerketa zientifikoaren arloan biltzarrak eta bilerak antolatzeko laguntzen programari.

Hortaz, dirulaguntzen xede diren jarduketan arduradunek aukera izan dezaten, horiek diseinatu eta antolatzeko orduan, laguntzek dakarten finantza-estalduraren segurtasuna izateko, jarduketa horiek gauzatu behar diren ekitaldiaren hasiera-hasieratik, eta urte natural bakoitzeko seihilekoetan deialdi bana egiteko planteamenduari jarraituz, egokia da laguntza-deialdia aurreratzea 2025eko lehen seihilekoan egitekoak diren kongresu eta bileretarako.

Deialdia Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren agindu baten bidez onartutako Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jasota dago –Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratuta dago– eta horrelako laguntzak finantzatzeko gastuak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorretan izan ohi du zuzkidura.

Oinarri gisa hartu da Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastu-espeditenteak aurrez izapidetzeko modua arautzeko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduan ezarritakoa.

Horretarako, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan 2025eko lehenengo seihilekoan ikerketa zientifikoaren arloko kongresu eta bilerak, presentzialak nahiz birtualak, antolatzeko diru-

laguntzak emateko oinarriak ezartzea eta dirulaguntza horiek lortzeko interesa duten erakundeei horretarako deialdia egitea.

2.– Deialdi honen ondorioetarako, biltzartzat hartuko dira gutxienez bi saio mota egiten diren ekitaldi zientifikoak: ponentziak aurkeztekoak eta ikertzaileak unean-unean ikertzen ari diren lanei buruzko datuen gaineko komunikazioak aurkeztekoak. Izan beharko dute batzorde antolatzaile bat, batzorde zientifiko bat eta hautaketa-batzorde bat, ponentzien eta aurkezpenen maila zientifikoa bermatuko duena, eta inskripzio bidez parte hartzeko deialdi publiko bat egin beharko da.

Bilera zientifikotzat joko dira helburu nagusitzat dutenak informazio zientifikoa eta teknologikoa trukatea ikertzaileen artean. Bilera horiek ez dute zertan izan ekarpen zientifikoak aurkezteko deialdi irekirik.

3.– Entitate eskatzailearekin batera parte hartzen duten entitate edo elkarte antolatzaileak nazioartekoak edo estatukoak izateak ekarriko du ekitaldia estatukoa edo nazioartekoa izatea.

4.– Deialdi honetatik kanpo geratzen dira, oro har, nagusiki prestakuntzakoak diren ikastaroak eta jarduerak, hala nola: prestakuntza-jardunaldiak, lantegiak eta mintegiak –irakasleak nahiz ikasleak trebatzekoak–; doktorego-, master- edo graduondo-programekin lotutako batzarrak; etengabeko prestakuntzarako jarduerak, eta ate irekien jardunaldiak eta jardunbide egokiak bate-ratzeko jardunaldiak, ikerketa zientifikoarekin lotura zuzena ez dutenak.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Deialdiaren xede diren laguntzak finantzatzeko 200.000 euro erabiliko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2025eko aurrekontuen kontura.

3. artikulua.– Entitate onuradunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko agente akreditatuak izango dira soilik laguntza hauen entitate onuradunak, edozein dela ere haien agente-kategoria, betiere Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzeari eta eguneratzeari buruzko ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 3. artikuluari jarraituz (2015eko uztailaren 16ko EHAA, 3170. zk.). Kanpoan geratuko dira, ordea, I+G enpresa-unitateak eta eskaintzako eta eskariko bitartekotza-erakundeak.

2.– Ezingo dira laguntzen onuradunak izan entitate hauek:

a) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 13.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiengatik zehapena jaso dutenak.

b) Armen ekoizpenean, merkaturatzean eta finantzaketan jarduten dutenak.

c) Laguntza bat legez kanpokoa eta barne-merkatuarekin bateraezina dela deklaratu duen Europar Batzordearen aurreiazko erabaki baten ondoren, berreskuratze-agindu baten mende daudenak.

d) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatzen dutenak, konbertzio-terapiak egin edo sustatzen dutenak barne.

3.– Ezingo zaie laguntzarik edo dirulaguntzarik eman sexu-bereizkeria eragiten duten jardue-rei, ez eta sexu-diskriminazioa egiteagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapena jaso duten pertsona fisiko edo juridiko-iei ere, dagokion zehapenean ezarritako aldian. Halaber, laguntza eta dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira estatu-araudiaren arabera berdintasun-plan bat indarrean izan behar duten arren

halakorik ez duten enpresak, eta estatu-legediak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen moduan sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten 50 langiletik gorako enpresak.

4.– Dirulaguntzen onuradun izateko aurreko apartatuetan adierazitako betekizunak bete beharko dira laguntza-eskabidea aurkezten den unetik emandako dirulaguntzaren likidazioa egin arte.

5.– Aurreko paragrafoetan aurreikusitakoa honela egiaztatuko da:

a) Ikerketa Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko ditu betekizun hauek:

– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean egiaztatutako eragile batek egin duela eskaera.

– Erakundeak egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Egiaztatzea Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak ezarritako momentuan eta moduan.

Hala ere, entitate eskatzaileak berariaz uka dezake baimen hori, eta, halakorik egiten baldin badu, betekizun horiek betetzen dituela egiaztatzen duten organo eskudunaren administrazio-agi-riak aurkeztu beharko ditu kasu bakoitzean.

b) Eskabidea aurkezteko formulario elektronikoan jasotako erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira gainerako betekizunak.

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eta finantza daitezkeen gastuak:

1.– Dirulaguntzaren xede diren biltzarrak eta bilerak, 1. artikuluan definitutakoak, 2025eko urtarilaren 1etik 2025eko ekainaren 30era bitartean hasi beharko dira.

2.– Diruz lagundutako ekitaldi zientifikoarekin zerikusia duten gastuak bakarrik lagunduko dira diruz. Egindako gastutzat hartuko dira justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak.

3.– Ekitaldi motaren (biltzarra edo bilera zientifikoa), izaeraren (estatukoa edo nazioartekoa) eta egiteko modalitatearen (aurrez aurrekoa edo onlinekoa) arabera diruz lagundu daitezkeen gastuen tipologia ondoko zerrendan jaso eta zehaztu da:

a) Hauetatik eratorritakoak: ekitaldia antolatzea, alokairuak, web-orriak sortzea edo laguntza-zerbitzuak, itzulpenak, marketina eta seinaleak.

b) Zabalkundekoak, jardueraren argitalpena barne dela.

c) Hizlarien bidaiei, ostatuari eta mantenuari dagozkienak.

d) Diruz lagundutako jardueran parte hartzen duten hizlarietzako haborokinak.

e) Deialdiaren xede diren ekintzetara joateko 30 urtera arteko (adin hori barne) gazte ikertzaileei inskripzioaren oinarritzko kuotaren (gastu sozialak kanpo) prezioetan aplikatutako beherapen osoak edo partzialak.

f) Erakundeak ikertzaile gazte horiei, diruz lagundutako ekitaldira joan daitezzen, justifikatutako bidaia- eta ostatu-gastuengatik ordaindutako zenbatekoen ehuneko 20 gehienez. Ez dira inola ere zenbatuko norberaren ibilgailuarekin egindako joan-etorriak.

g) Biltzarretan sariak ematekoak.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak	Biltzarra		Bilera zientifikoa	
	Aurrez aurrekoa	Onlinekoa	Aurrez aurrekoa	Onlinekoa
Ekitaldia antolatzea	x	x	x	x
Jardueraren zabalkundea eta argitalpena	x	x	x	x
Hizlarien bidaiak, ostatua eta mantenua	x		x	
Hizlarien haborokinak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen inskripzio-kuotetako hobariak	x	x	x	x
Ikertzaile gazteen bidaia eta ostatua	x		x	
Sariak	x	x		

4.– Honako hauek, berriz, ez dira diruz lagunduko:

a) Gastu sozialak, bertaratutakoen otorduak eta ostatua, egintza ludikoak, kafe-etenaldiak, dietak, protokolo-gastuak, ez eta batzorde antolatzaileak ekitaldia hasi aurretik egin dituen gastuak ere.

b) Hizlarien bidaiak, ostatua, mantenua eta haborokina, baldin eta laguntzaren xede den ekitaldiaren programan sartuta ez badaude.

c) Jarduerari egotzitako gastuak, entitate onuradunaren beraren elementuak erabiltzeak sortutakoak.

d) Entitate onuradunaren estatutupeko edo kontratupeko langile finkoen ordainsariak, eta ikerketako bekadunentzako zuzkidurak.

e) Bilera zientifikoetan, ez da inola ere finantzatzeko sariak emateko gastua.

f) Enpresa hornitzailea eta entitate onuraduna lotzen dituzten gastuak, ez badira berariaz justifikatzen; justifikazio hori Ikerketa Zuzendaritzak baloratu eta baimendu beharko du. Oinarri hauen ondorioetarako, ulertuko da bi entitate edo enpresa lotuta daudela, baldin eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31.8 artikulua adierazitako egoeraren batean badaude.

g) Deialditik kanpo utziko dira, berariaz, bisita gidatuen edo turistikoen gastuak.

5.– Entitate onuradunak hirugarrenekin hitzartu ahal izango du diruz lagundutako jarduera gauzatzea, gehienez ere diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 50era arte, hirugarrenekin egindako azpikontratu guztien prezioak batuta.

6.– Kontzeptu honetatik kanpo geratzen dira diruz lagundutako proiektua entitate onuradunak berak gauzatzeko egin behar dituen gastuak.

7.– Edonola ere, diruz lagundutako jardueraren kontratuak Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko du.

8.– Diruz lagundu daitezkeen gastuei buruzko gainerako alderdiei dagokienez, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Lege Orokorraren 30. artikuluan xedatua aplikatuko da.

5. artikulua.– Eskabideak formalizatzea, dokumentazioa, eta aurkezteko epeak.

1.– Eskaerak egiteko, formulario bat bete beharko da, zeina bide telematikoz eskuratu ahal izango baita Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saileko egoitza elektronikoan, webgune honetan: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/0057515>

Eskabidea elektronikoki sinatzeko, entitate eskatzaileak erakunde-txartela izan beharko du, eta, halakorik izan ezean, legezko ordezkariak alta hartu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ordezkarrien Erregistroan (Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua).

Aplikazioan, ziurtagiri elektroniko bidez sartu beharko da (helbide elektroniko honetan argitaratuta daude elektronikoki identifikatzeko onartutako sistemak: <https://www.euskadi.eus/identifikazio-elektronikorako-onartutako-bitartekoak/web01-sede/eu/>). Aplikaziora sartzen diren pertsonak baimena ematen diote Ikerketa Zuzendaritzari (deialdia kudeatzen duen organoari) nortasun-datuak administrazio eskudunean egiazta ditzan bitarteko elektronikoaren bitartez edo eskuragarri dituen bestelako baliabideen bitartez.

2.– Eskabide telematikoa osorik betetakoan, eta artikuluko honen 6. apartatuan adierazitako agiriak aplikazioaren bidez erantsitakoan, entitate eskatzaileak eskabidea erregistratzeko prozesu elektronikoaren osatu beharko du; izan ere, sinadura elektronikoaren bidez eskabide bati balioa emateko, jasota geratu behar da erregistratu dela.

Hori ziurtatzeko, entitate eskatzaileak agirien Erregistro-elektronikoa/Aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukeratuta. Ez da onartuko erabat modu elektronikoan bete eta erregistratu ez den eskabiderik.

3.– Bukatzeko, erantzukizunpeko adierazpena erantsi beharko da, eskabidea aurkezteko aplikatibo informatikoan eskuratu baitaiteke.

4.– Entitate eskatzaileek Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta horri erantsi beharreko gainerako agiriak. Orobat, eskabidea aurkeztu izanaren ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluek ezartzen dutenari jarraituz.

5.– Eskabideak aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu egin direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak, aurkaratzea galarazi gabe.

6.– Eskatutako dokumentazioa.

Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, bai eta aplikazio telematikoan sartu ere:

a) Jarduerari buruzko memoria zientifikoa; honako hauek zehaztuta:

– Ekitaldiaren garrantzia. Ekitaldiaren deskribapena, ezaugarriak, irismena eta tipologia jaso beharko ditu.

– Behin-behineko edo behin betiko programa, egutegia, hizlariak, eta programa argitaratua duen webgunearen esteka.

– Batzorde antolatzailearen, batzorde zientifikoaren eta hautapen-batzordearen osaera, halakorik badago.

b) Eskatzen diren funtsak justifikatzeko memoria ekonomikoa; kontzeptua, unitateak, tokiak, kostuak edota aurrekontuak zehaztu behar dira. Era berean, taula bat erantsi beharko da, non jasoko baita zer gastu eta diru-sarrera zenbatesten diren, hala xehe-xehe nola osotara. Gastu horiek bat etorri beharko dute aplikatiboan, inprimaki normalizatuan, egindako eskabidean adierazitakoekin (aplikatibo informatikoan eskuratu daiteke agiri horren txantiloia).

c) Entitate deitzailearen edo antolatzailearen saileko kontseiluaren edo maila altuagoko batzordearen akta: espresuki adierazi beharko da ekitaldia antolatzeko eta deialdia egiteko erantzukizuna, konpromisoa eta onarpena.

d) Hizlariek parte-hartzea onartu izanaren egiaztagiria. Horretarako, aplikatibo informatikoak egiaztagiriaren txantiloia bat du eta behar bezala beteta eta sinatuta entregatu beharko du hizlariak. Hizlari bakoitzeko dokumentu bat aurkeztuko da. Balorazioaren ondorioetarako, behar bezala sinatutako txantiloia bidez emandako gonbidapenak baino ez dira kontuan hartuko.

Hizlaritzat hartuko dira ekitaldirako espresuki ponentzia bat aurkezteko eskatu zaien eta programan esplizituki ageri diren horiek, baldin eta biltzarraren edo bilera zientifikoaren batzorde antolatzailearen parte hartzeko gonbidapena onartu badute. Era berean, hizlaritzat jo ahal izango dira beste pertsona batzuk, hasierako programan sartu ez zirenak, eta, azken orduko aldaketak direla-eta, hizlari modura jardungo dutenak, laguntza-eskabidea egiterakoan ziurtzat jo ziren beste batzuen ordez.

Ez dira hizlaritzat hartuko, eta, beraz, ez da bidali beharko akreditaziorik, ez jardueran posterren edo ahozko komunikazioen bidez parte hartzen duten pertsonenik, ez eztabaidak moderatzeko lanetan parte hartzen dutenenik, ez mahai-inguruetara, elkarrizketetara eta lantegietara gonbidatu direnenik ezta ekitaldiaren aurkezpen- edo amaiera-ekitaldietan parte hartzen dutenenik ere.

e) Laguntza honen eskabidearen epea amaitzean eskatu edo eskuratu diren laguntzen egiaztapena.

f) Erantzukizunpeko adierazpena.

Dokumentuak PDF formatuan aurkeztuko dira.

7.– Eskabidea aurkezteko epea.

Eskabidea aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

6. artikulua.– Deialdiaren kudeaketa.

Ikerketa Zuzendaritzak kudeatuko du deialdia.

7. artikulua.– Eskabideko akatsak zuzentzea.

Baldin eta agindu honen 5. artikuluan eskatutako zerbait betetzen ez duen eskabideren bat edo agiriren bat aurkezten bada, Ikerketa Zuzendaritzak 10 eguneko epea emango die eskabideen entitate sinatzaileei hutsak zuzendu ditzaten edo arauzko agiriak aurkez ditzaten, eta ohartaraziko die ezen, agindutakoa bete ezean, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Hala agintzen da urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68.1 eta 21.1 artikuluetan (39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena).

Zuzenketak egiteko errekerimenduak 12. artikuluko hirugarren apartatuan ezarritako prozedurari jarraikiz jakinaraziko dira.

8. artikulua.– Ebaluazioa eta hautaketa.

1.– Hautaketa Batzorde batek ebaluatuko ditu eskabideak. Honako hauek izango dira batzordeko kideak: Ikerketako zuzendari Amaia Esquisabel (lehendakaria izango da); Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendari Sara Urionabarrenetxea, eta Ikerketa Zuzendaritzako teknikari Iban Ariznabarreta, zeinak idazkari-lanak egingo baititu.

Hautaketa-batzordeak, hurrengo paragrafoan ezarritako esleipen-irizpideak aintzat hartuta, egindako ebaluazioaren emaitza jasotzen duen txostena emango du, eta txosten horretan jasoko ditu eman nahi diren dirulaguntzak, honako hauek adierazita: onuradun izateko proposatutako entitateak, balorazio-fasean lortutako puntuazioa, dirulaguntza zer jarduketa egiteko ematen den eta emango den zenbatekoa, gastu-kontzeptuen arabera banakatuta. Horrez gain, ukatuko dituen dirulaguntzak ere jasoko ditu proposamenean, ukatzeko arrazoiak adierazita. Era berean, ezetsi egin diren beste eskabideen zerrenda ordenatu bat jaso daiteke, non adieraziko den zer eskabide ezetsi den, onuradun izateko oinarri arautzaileetan ezarritako baldintza administratibo eta teknikoak bete arren, deialdian finkatutako kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dutelako; zerrenda horretan, deialdian aurreikusitako balioespen-irizpideen arabera eskabide horietako bakoitzari emandako puntuazioa adieraziko da.

2.– Eskabideak irizpide eta puntuazio hauen arabera ebaluatuko dira:

- a) Ekitaldi mota. Biltzarrek 40 puntuko balorazioa izango dute, eta bilerek, berriz, 20 puntukoa.
- b) Ekitaldiaren izaera: nazioartekoa, 20 puntu; estatukoa, 10 puntu.
- c) Hizlari-kopurua: 10 puntura arte gehienez. Puntuazio hori emateko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:
 - c.1.– 0,5eko balorazioa emango da hizlari bakoitzeko, baldin eta eskabidearen epea amaitzean haien parte-hartzea baieztatuta badago; 8 puntu, gehienez.
 - c.2.– Bi puntu gehiago emango zaizkio hizlarien genero-orekari. Talde bakoitzaren genero-oreka baloratzeko, arau hau erabiliko da: bi puntu emango zaizkie sexu bakoitzeko hizlarien % 40 edo gehiago ziurtatzen duten taldeei; puntu bat emango zaie sexuetakoko bateko kideak % 30 edo gehiago eta % 40 baino gutxiago direnean; eta ez da puntuaziorik lortuko atal honetan sexuetakoko batek % 30etik behera hartzen duenean.
- d) Zenbateko asistentzia aurreikusten den.
 - d.1.– Aurrez aurre bertaratutako hogeita bost laguneko, puntu bat emango da; 10 puntu, gehienez.
 - d.2.– Onlinez bertaratutako hogeita bost laguneko, 0,5 puntu emango da; 10 puntu, gehienez.
- e) Kanpoko iturriek emandako finantzaketa: bertaratutakoen kuotak eta dirulaguntza publikoak edo pribatuak, jarduera egiteko egiaztatutakoak. Puntu batez baloratuko da adierazitako iturrietatik sortutako finantzaketaren % 4ko; 20 puntu, gehienez.

9. artikulua.– Laguntzak esleitzeko prozedura.

Deialdi hau ebazteko norgehiagoka prozedura baliatuko da, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 19.1 artikulua xedatutako lehiaketaren bidez ebatziko da. Horretarako, aurkeztu eta onartutako eskabideak erkatuko dira, haien artean lehen-tasun-hurrenkera ezartzeko, 8. artikuluan finkatutako irizpideei jarraituz. Puntu gehien lortzen duten eskabideei, balorazio-fasean lortutako puntuazioari goitik beherako ordenan jarraituz, eta

ekitaldiaren modalitatearen eta izaeraren arabera lor daitezkeen puntuen erdiak lortu dituztenei baino ez zaizkie esleituko dirulaguntzak, 8. artikulua xedatutakoarekin bat, harik eta agindu honen 2. artikuluan izendatutako aurrekontu-kreditua amaitu arte.

Puntuazio-berdinketak ebazteko, 8.2 atalean adierazitako irizpide-bloke bakoitzean lortutako puntuazio altuena hartuko da kontuan, honako ordena honetan: a), b) eta c). Berdinketak irauenez gero, eskaerak betetzeko aplikazioak ematen duen ausazko zenbakia erabiliko da ebazteko, goranzko ordenan. Zenbaki hori aplikazio telematikoan sortzen den eskabide-inprimakian agertuko da.

10. artikulua.– Dirulaguntzen zenbatekoa.

1.– Emango diren laguntzen gehieneko zenbatekoa honako hau izango da:

		Aurrez aurrekoa (euro)	Onlinekoa (euro)
Biltzarra	Nazioartekoa	20.000	10.000
	Estatukoa	10.000	5.000
Bilera zientifikoa	Nazioartekoa	7.500	3.750
	Estatukoa	4.000	2.000

2.– Biltzarretako sarietarako gehieneko zenbatekoak ez du emandako guztiaren % 10 gaindituko.

3.– Emandako zenbateko osoak ez du inola ere gaindituko ez eskatutako kopuru osoa, ez Agindu honen 4. artikuluan zehaztutako diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren herena. Ez da emango eskabidean aurreikusitako gastuen eta sarreraren arteko aldea gainditzen duen zenbatekorik.

4.– Kasu bakoitzean eman beharreko laguntzaren zenbatekoa zehazteko, artikulua honen aurreko apartatuek ahalbidetzen duten gehienekoa hartuko da kontuan.

11. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honen babesean ematen diren laguntzak bateratu ahal izango dira biltzar edo bilera bera egiteko xedea duen beste edozein laguntzarekin, izan funts publiko edo pribatu. Alabaina, biltzar edo bilera bererako lortu diren laguntzen zenbatekoa guztira kostu osotik gorakoa bada, dagokion neurrian murriztuko da deialdi honen arabera emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

12. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Emandako laguntzak esleitzeko eta dagozkien zenbatekoak zehazteko, organo kudeatzaileak proposamen justifikatua eta arrazoitua egingo du, eta Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak emango du ebazpena, betiere agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman, eta sei hileko epean. Era berean, organo kudeatzaileak txosten bat egingo du, eta bertan adieraziko du onuradunek baldintza guztiak betetzen dituztela.

Ebazpenean honako hauek jasoko dira: erakunde onuradunen zerrenda eta zuzkidura ekonomikoa, kreditu erabilgarriaren mugaraino, eta erreserben zerrenda bat, deialdirako kreditu faltagatik eman ez direnak eta, 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, gutxienez puntu eskuragarrien erdia lortu dutenak; halaber, ukatutako eskabideen zerrenda, ukatzeko arrazoiarekin; eta baztertutako eskabideen zerrenda, baztertzeko arrazoiarekin.

Hartzen den ebazpenak erabakiko du eskatutako laguntzak emango diren ala, hala badagokio, ukatuko diren; lehenengoan kasuan, hauek adierazi beharko dira: espedientearen erreferentzia zenbakia, entitate onuradunaren izena, entitatearen IFK, ebaluazioan lortutako puntuak guztira, ekitaldiaren deskribapena eta zuzkidura ekonomikoa.

2.– Artikulu honen 1. apartatuak jasotako epea pasatu bada eta prozeduraren ebazpena jakinarazi ez, interesdunek ulertu ahalgo dute dirulaguntza emateko eskabidea ezetsia izan dela administrazio-isiltasunez, 6. apartatuak jasotako gora jotzeko errekurtsua jartzearen ondorioetarako.

3.– Egoitza elektronikoko iragarki-taulan argitaratuz jakinaraziko da aipatutako ebazpena: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa>. Era berean, jakinarazpen elektronikoa bat bidaliko da EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera (<https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/>). Ziurtagiri elektronikoen bidez sartu beharko da bertara.

4.– Alde batera utzi gabe 3. apartatuan ezarritakoa, Ikerketa Zuzendaritzak argitalpenen berri bidali ahal izango die entitate interesdunei, eurek jakinarazitako SMS edo posta elektronikoa bidez. Abisu horiek ez dute inolaz ere jakinarazpenerako baliorik izango.

5.– Emate-ebazpena argitaratu eta hurrengo 10 egunetan gertatzen diren uko-egiteen kasuan, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bidez emango zaizkie laguntzak erreserben zerrendan agertzen diren eskabideei.

Emandako azken laguntzaren ondoren dauden eskabideei emango zaizkie laguntza horiek, baldin eta, 8. artikulua ezarritakoarekin bat, modalitatearen arabera lor daitezkeen puntuen erdia lortu badute. Esleitu beharreko zenbatekoa, gehienez ere, batzordearen balorazioaren arabera uko egindako eskabideari legokiokeen zenbatekoa izango da.

Organo laguntza emaileak entitate interesdunei jakinaraziko die zein den laguntza emateko proposamena, 10 egun naturaleko epe luzaezinean onar dezaten. Proposamena onartutakoan, laguntza emateko ebazpena emango da, eta entitate interesdunei jakinaraziko zaie.

6.– Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, entitate interesdunek gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera. Horretarako, hilabeteko epea izango dute, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.

13. artikulua.– Publikotasuna.

Jende guztiak horren berri izan dezan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da emandako laguntzen zerrenda, entitate onuradunak eta emandako zenbatekoak adierazita, iragarki-taulan argitaratu ondorengo bi hilabeteetan.

14. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradunek bete beharko dituzte Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluek xedatutako betebeharrak, besteak beste honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza emateko ebazpenari buruzko jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean interesdunak berriaz eta idatziz uko egin ez badio laguntzari, onartu egin duela ulertuko da.

b) Helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo dirulaguntza eman izanaren oinarrian dagoen jarrera hori hartzea.

c) Dirulaguntza ematen duen organoaren edo entitate laguntzailearen aurrean betekizunak eta baldintzak betetzen direla frogatzea, eta dirulaguntzaren xede den jarduera egin dela eta haren helburua bete dela ere bai.

d) Uko-egiteak, atzerapenak edo gainerako gorabeherak jakinaraztea, Ikerketa Zuzendaritza jakinaren gainean egon dadin eta, behar izanez gero, berariazko baimena eman dezan.

e) Egiaztapen-jarduerak onartzea, laguntza eman duen organoak egingo dituenak, bai eta deialdi honen kargura jaso dituzten dirulaguntzei buruzko informazioa ematea ere Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari.

f) Organo emaileari edo entitate laguntzaileari lortutako beste dirulaguntzen berri ematea, dirulaguntza jasotako jarduerak finantzatzen dituzten sarreraren edo baliabideen berri ematea, baita hura emateko kontuan hartutako edozein egoera objektibo edo subjektiboren inguruko aldaketen berri ere. Adierazitakoaren berri izan bezain laster egin beharko da jakinarazpen hori, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

g) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

h) Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren logotipoa eta irudi korporatiboa txertatzea, bai karteletan, bai jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren baliabideetan, bai ondorengo argitalpenetan (Eusko Jaurlaritzaren claim-a aplikatzeko gidaliburua). 2017ko apirilaren 4ko Ebazpena (2017ko apirilaren 12ko EHAA, 72. zk.).

i) Irudi ez-sexistak erabiltzea ekitaldiaren publizitatea egiteko ikusizko edukietan eta seinaleetan, bai eta ekitaldiak iraun bitartean zabaltzen den materialean ere.

j) Hizkera ez-sexista erabiltzea laguntza-eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan, bai eta aktetan edo baliokideetan ere, halakorik badago.

k) Dirulaguntza ordaintzeko momentuan egiaztatzea egunean dituela hala zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak nola dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoarekin bat (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

l) Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan aurreikusitako kasuetan, jasotako funtsak itzultzea, edo diruz lagundutako jardueraren edo jarduketaren kostutik gora jasotakoa.

15. artikulua.– Laguntzak ordaintzea.

1.– Emandako laguntzak zatika ordainduko dira, bi alditan.

a) Lehen zatia aurretiaz ordainduko da kontuan, eta emandako laguntzaren % 50ekoa izango da; 14.a) artikuluan adierazitako epea amaitzen denean ordainduko da, baldin eta laguntzari uko egin ez bazaio.

b) Bigarren zatia, berriz, 2025. urtean ordainduko da, jarduera bukatzean, baina. Zehazki, laguntzaren likidaziotik ateratzen den zenbatekoa ordainduko da, hurrengo artikuluan eskatutako agiriak aurkeztu ostean, betiere.

2.– Dirulaguntzak ez dira ordainduko erakunde onuradunak ez badu egiaztatzen beteta dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak; ez da ordainduko, halaber, dirulaguntza edo laguntzaren bat badu itzuli gabe.

3.– Ordainketak egin ahal izateko entitate onuradunak inskribatua egon beharko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Hirugarrenen Erregistroan (<https://www.euskadi.eus/hirugarrenen-erregistro-telematikoa/web01-s2oga/eu/>)

16. artikulua.– Laguntzen justifikazioa.

Laguntzaren xede den ekitaldiko ekintzak burutzeak dakartzan gastuak justifikatu beharko dira, agindu honen 4.1 artikuluan zehaztuta daudenak.

1.– Agindu honetako laguntzen entitate onuradunek justifikatu beharko dute biltzar edo bilera zientifikoa egin dutela, finantzaketaren helburu baita; hartarako, Ikerketa Zuzendaritzan agiri hauek aurkeztu beharko dituzte inprimaki normalizatuan, finantzatutako jarduera bukatzen denetik hiru hileko epearen barruan (aplikazioan eskuragarri dago dokumentu horren txantilo bat).

a) Emandako laguntzarekin egindako gastuaren ziurtagiria. Zerrenda bat erantsiko zaio, fakturak eta haien zenbatekoa zehaztuko dituena. Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta egon behar du dokumentu horrek.

b) Diruz lagundutako jardueraren gastu eta diru-sarrera guztien balantze ekonomikoa. Entitate onuradunaren legezko ordezkariak sinatuta aurkeztu beharko da dokumentu hori.

c) Azken memoria, balantze zientifikoa duela, eta bertaratutakoei entregatu zaien materiala barnean dela; material hori eskuragarri jartzeko, esteka elektronikoa bat edo esteka bat txertatuko da memorian, edukia eskuratzeko aukera emango duena. Horretaz gainera, azaldu beharko da zer neurri hartu diren Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeari eta lagundutako jarduera guztietan Eusko Jaurlaritzaren logotipoa txertatzeari lotutako obligazio guztiak betetzen direla bermatzeko.

d) Biltzarraren akten ale bat, edo, halakorik badago, horien baliokideak. Behin-behinean onartuko dira akten zirriborroak edo baliokideak, haiek argitaratzea aurreikusi bada.

e) Entitate onuradunak, gazte ikertzaileei laguntzeko funtsik jasoz gero, bekadunen zerrenda aurkeztu beharko du (izena eta NANA), bai eta egindako deskontuaren zenbatekoa azaltzen duen inskripzioa ere.

Bidaia-gastuetarako laguntzen kasuan, onartu baldin bada, txartel prezioduna edo faktura aurkeztu beharko da.

2.– Artikulu honetan adierazitako agiri guztiak bide telematikoak aurkeztu beharko dira, 5. artikuluan 1. apartatuan adierazten den eran.

3.– Ikerketa Zuzendaritzak egiaztatuko du dirulaguntza behar bezala erabili dela, entitate onuradunaren % 10eko ausazko lagin bat eginez. Horretarako, entitate onuradunari eskatuko zaie dirulaguntzari egotzitako gastuen egiaztagirien jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkezteko.

4.– Nolanahi ere, entitate onuradunak fakturak eta laguntzaren xede izan diren gastuak egiaztatzeko gainerako agiriak gorde beharko dituzte gutxienez bost urtez, justifikazio-epea amaitzen

denetik aurrera. Epe horretan, faktura eta agiri horiek laguntzak eman dituen organoaren eskura egongo dira eta eskatu ahal izango ditu egiaztatzeko.

5.– Artikulu honetan adierazitako dokumentuak aurkeztu ostean, Ikerketa Zuzendaritzak berriro egiaztatuko du ea emandako dirulaguntzak gainditzen duen entitate onuradunari diruz lagun dakiokeen gastuaren herena, ez eta entitate onuradunak dirulaguntzaren xede den jarduera gauzatzean izan dituen gastuen eta diru-sarrereren arteko diferentzia ere. Kasu bi horietan, nolako superabita sortzen den, halako murrizketa aplikatuko zaio dirulaguntzaren zenbatekoari. Era berean, emandako dirulaguntza baino gutxiagoko gasturik justifikatuz gero, justifikatu gabeko zenbatekoaren adinako murrizketak aplikatuko dira.

Baldin eta gutxitu behar bada hasieran emandako kopurua, jasotako dirulaguntzak proportzio berean itzuli beharko dira, dagokion prozedurari jarraituz. Prozedura hori Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeak amaituko du ebazpen baten bidez, non hasierako ebazpena aldatuko baita.

17. artikulua.– Jarraipena.

Ikerketa Zuzendaritzak egin behar du dirulaguntza-deialdiaren jarraipena. Horretarako, prozedura egokiak ezarriko ditu, eta egoki iriztitako organo, batzorde edo adituak izendatuko, laguntzaren aplikazioaren jarraipen- eta egiaztapen-jarduerak gauzatzeko, bai eta egoki jotzen duen informazio osagarria aurkez dadila eskatzeko ere, alde batera utzi gabe agindu honetan kasu bakoitzerako berriaz ezarritako jarraipen-jarduerak.

18. artikulua.– Ikuskapena eta kontrola.

Ikerketa Zuzendaritzak ikuskapenak eta kontrolak egin ahal izango ditu, bermatzeko ea betetzen diren agindu honen helburuak.

19. artikulua.– Ez-betetzeak, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela deklaratzeko eta, hala badagokio, laguntza itzultzea.

1.– Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 35.4 eta 36. artikuluetan ezarritakoa aplikatuko da, ez-betetzeei eta laguntza itzuli beharrari buruzkoa baitira, eta 40. artikuluan ezarritakoa ere bai, laguntza itzultzeko prozedurari buruzkoa baita.

2.– Emandako dirulaguntza edo haren baldintzak aldatzea erabaki dezake dirulaguntzaren organo emaileak, ofizioz edo interesdunak eskatuta, betekizun hauek betetzen direnean:

a) Dirulaguntzen oinarri erregulatzaillean aurreikusita egotea aldatzeko aukera.

b) Dirulaguntza aldatzea interesdunak eskatuz gero, 14.e) artikuluan adierazitako betebeharra betez jakinaraztea onuradunak, jakin bezain laster eta, nolana ere, jasotako funtsen aplikazioa justifikatu baino lehen.

c) Zenbatekoa gehitu behar ez izatea.

d) Oinarri erregulatzailleen xedeen artean egotea gauzatu den edo gauzatzekoa den jarduera edo jokabidea.

e) Onuradunaren borondateak zerikusirik ez izatea aldaketa justifikatzen duten inguruabarrekin.

f) Aldaketa dakarten elementu eta inguruabar berriak, hasierako dirulaguntza emateko unean gertatu izanez gero, dirulaguntza ez emateko arrazoi ez izatea, eta aldaketak ez eragitea hasieran onetsitako proiektua nabarmen aldatzea.

g) Hirugarrenen eskubideei kalterik ez egitea.

2.– Dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat jaso badu onuradunak eta aldaketaren ondorioz dirulaguntzaren zenbatekoa murriztu behar bada, aipatutako legearen 40. artikuluan aurreikusita-koari jarraituko zaio.

3.– Dirulaguntzen Araudia Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluekin bat etorriz –artikulu horrek arautzen du dirulaguntza itzultzeko prozedura orokorra–, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak adieraziko du, ebazpen baten bidez, laguntza jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala behar denean, jasotako diru-zenbatekoak eta dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko berandutze-interesa Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli behar zaizkiola. Dena den, hori egin baino lehen, prozedurari dagozkion izapideak egin beharko dira, eta, behar izanez gero, beste ekintza batzuk ere gauzatuko dira.

4.– Bestalde, aipatutako zenbateko horiek zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

20. artikulua.– Atzera egitea eta uko egitea.

1.– Laguntza eskatzen duen entitateak atzera egin ahal izango du, betiere laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi aurretik, eta agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzen dituen organoari aurkeztu beharko dio atzera egiteko eskaera hori. Atzera egiteko eskaera, bestelako izapiderik egin behar izan gabe, Ikerketako zuzendariaren ebazpen baten bidez onartuko da, zeinak prozedura amaitutzat emango baitu dagokion entitatearentzat.

2.– Entitate onuradunak uko egin ahal izango dio emandako laguntzari. Emandako dirulaguntza onartu ondoren ere egin ahal izango du hori. Uko egiteko eskaera laguntzak kudeatzen dituen organoari aurkeztu beharko zaio, eta, hala badagokio, ordura arte jasotako zenbatekoa itzuli beharko da. Baldintza horietan, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen ebazpen baten bidez, uko-egitea bestelako izapiderik egin behar izan gabe onartuko da, eta hura jasotzeko eskubidea galdutzat emango da.

3.– Aurkeztutako uko-egitea ez da onartuko, baldin eta entitate interesdunari jakinarazi bazaio ez-betetzea edo zehatzea deklaratzeko prozedura hasi dela deialdi honen esparruan. Prozedura horrek aurrera jarraituko du, ebatzi arte.

21. artikulua.– Datuak babestea.

«Datu pertsonalak tratatu eta izen honetako tratamenduari dagokion jardueran sartuko dira: Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak).

- Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza – Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.
- Xedea: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.
- Legitimazioa:

Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak baliatzeko jardunean.

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

- Hartzaileak:

Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Ogasun eta Finantza Departamentua.

Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

- Eskubideak: interesdunak datuak irispidean izateko, datuak zuzentzeko eta ezerezteko eskubidea du, bai eta informazio gehigarrian adierazitako beste eskubide batzuk ere.

- Informazio gehigarria: gure webgunean kontsulta dezakezu datu-babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-capa2-eu.shtml

- Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).»

XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako dirulaguntzei buruzko ebazpena emateko, ezinbestekoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea Euskal Autonomia Erkidegoko 2025. urteko Aurrekontu Orokorretan, hala ezarrita baitago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren bidez ordainduko diren gastuak aurrez izapidetzeko modua arautzeko Ogasun eta Herri Administrazioako sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua aldizkari ofizial berean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko azaroaren 19a.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

2024ko abenduaren 4a, asteazkena

ERANSKINA

ESKAERA EGITEKO INPRIMAKIA	ERREFERENTZIA	RC_2025_1_ ()
	BARNE-KODEA	
BILTZARRAK ETA BILERA ZIENTIFIKOAK EGITEKO LAGUNTZAK		

A.- ENTITATE ESKATZAILEA ETA JARDUERAREN ARDURA DUEN IKERTZAILEA
--

ENTITATE ESKATZAILEA	
Sozietatearen izena	
IFK	
Helbidea	PK:
Telefonoa	
Helbide elektronikoa	

IKERTZAILE ARDURADUNA			
Abizenak, izena			
NAN			
Sexua		Gizonezkoa	Emakumezkoa
Helbide elektronikoa			
1. telefonoa		2. telefonoa	
Departamentua			
Zentroa			

2024ko abenduaren 4a, asteazkena

B.- JARDUERAREN EZAUGARRIAK.

JARDUERA			
Izenburua			
Non egingo den			
Modalitatea	Aurrez aurrekoa <input type="checkbox"/>	Online <input type="checkbox"/>	
Hasiera-data		Bukaera-eguna	
Izaera	Biltzarra <input type="checkbox"/>	Bilera <input type="checkbox"/>	
Eremua	Estatukoa <input type="checkbox"/>	Nazioartekoa <input type="checkbox"/>	
Maiztasuna	Urtekoa <input type="checkbox"/>	Bi urtean behin <input type="checkbox"/>	
	Bestelako maiztasuna <input type="checkbox"/>	Maiztasunik gabe <input type="checkbox"/>	
Sektore sozioekonomikoa			

EGINDAKO AZKEN EKITALDIAREN DATUAK

Izenburua			
Non egin den			
Noiz egin den			
Entitate deitzailea			
Entitate antolatzailea			
Bertaratuen kopurua		Hizlarien kopurua	

ANTOLAKETA

Entitate deitzailea		
Helbidea		
Entitate antolatzailea		
Helbidea		
Jardueraren antolamendua babesten duten entitate laguntzaileak		
Entitatea		Emandako laguntza (dirua eta/edo baliabideak)

2024ko abenduaren 4a, asteazkena

BILTZARRAK. DATU OROKORRAK			
Orain arte zenbat lan jaso diren			
Zenbat lan onartuko diren			
Zenbat osoko hitzaldi			
Zenbat ponentzia gonbidatu			
Zenbat komunikazio libre			
Poster moduko zenbat komunikazio			
Bertaratuak		Hizlari gonbidatuak	
GUZTIRA bertaraturakoak		EAE	
		Estatukoak	
		Atzerrikoak	
		GUZTIRA	
		Zenbakiz adierazi hizlari gonbidatuen generoa	
		Hizlari emakume gonbidatuak guztira	
		Hizlari gizon gonbidatuak guztira	

BILERAK. DATU OROKORRAK			
Zenbat saio:			
Bertaratuak:		Hizlari gonbidatuak	
GUZTIRA bertaraturakoak		EAEkoak	
		Estatukoak	
		Atzerrikoak	
		GUZTIRA	
		Zenbakiz adierazi hizlari gonbidatuen sexua	
		Hizlari emakume gonbidatuak guztira	
		Hizlari gizon gonbidatuak guztira	

C.– GASTUEN ETA DIRU-SARREREN AURREKONTUA (*)

(*) Adierazi zenbateko aurrekontua duen entitate eskatzaileak biltzarra edo bilera antolatzeko, gastuak eta diru-sarrerak zehaztuta.

GASTUAK (eurotan)	
a) Ekitaldia antolatzea (1)	
b) Jarduera zabaltzea eta argitaratzea (2)	
c) Hizlari gonbidatuen bidaiak, ostatua eta mantenua (3)	
d) Hizlari gonbidatuen haborokinak (4)	
e) Ikertzaile gazteen inskripzio-kuotetako hobariak (5)	
f) Ikertzaile gazteen bidaia eta ostatua (6)	
g) Sariak (7)	
h) Ekitaldi sozialak (zehaztu zein diren) (8)	
i) Bestelakoak (zehaztu zein diren) (9)	
GUZTIRA	

(1) Ekitaldia antolatzea, alokairuak, web-orriak sortzea edo laguntza-zerbitzuak, itzulpenak, marketina, seinaleak, etab.

(2) Zabalkundea, jardueraren argitalpena barnean dela.

(3) Hizlari gonbidatuen bidaiak, ostatua, mantenua, prozesuko egintza-aktak, etab.

(4) Diruz lagundutako jardueran parte hartzera gonbidatutako hizlariarentzako haborokinak.

(5) 30 urtera arteko ikasle eta ikertzaile gazteentzako hobariak, inskripzio-prezioen gainekoak barnean direla.

(6) Bidaia- eta ostatu-gastuak; gazteek ordaindutako zenbatekoen % 20 emango da, gehienez. Ez dira sartuko nork bere ibilgailuan egindako joan-etorriak.

(7) Biltzarretako sarietarako gehieneko zenbatekoak ez du emandako guztiaren % 10 gaindituko.

(8) Bertaratutako eta parte-hartzaileen otorduak, egintza ludikoak, kaferako atsedanak, dietak, protokolo-gastuak, eta ekitaldia hasi aurreko gastuak (batzorde antolatzailearen otorduak eta bidaiak).

(9) Erakunde onuradunaren beraren elementuak erabiltzea, estatutupeko edo kontratupeko langile finkoen ordainsariak, eta ikerketako bekadunentzako dotazioak.

DIRU-SARRERAK (eurotan) (*)	
a) Inskripzio-kuotak	
b) Dirulaguntzak	
c) Bestelako diru-sarrerak	
GUZTIRA	

(*) Ez sartu EJri eskatutako deialdiko laguntzaren zenbatekoa

INSKRIPZIO-KUOTEI BURUZKO XEHETASUNAK (*)		
Zenbat inskripzio aurreikusten den	Kuota unitarioa (eurotan)	Inskripzio-kuotaren barruan kontzeptu hauek daude

(*): Adierazi zenbat inskripzio aurreikusten den kuota-mota bakoitzeko.

JASOTAKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO XEHETASUNAK	
Entitatea	Zenbatekoa (eurotan)
a)	
b)	
c)	
d)	
e)	
f)	
g)	
h)	
l)	
j)	
k)	

ESKATUTA ETA EMATEKE DAUDEN DIRULAGUNTZEI BURUZKO XEHETASUNAK	
Entitatea	Zenbatekoa (eurotan)
a)	
b)	
c)	
d)	
e)	
f)	
g)	
h)	
l)	
j)	
k)	

2024ko abenduaren 4a, asteazkena

BESTE DIRU-SARRERA BATZUEI BURUZKO XEHETASUNAK	
Kontzeptua eta erakundea	Zenbatekoa (eurotan)
a)	
b)	
c)	
d)	
e)	
f)	
g)	
h)	
l)	
j)	
k)	

D.– ESKATZEN DIREN FUNTSAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa (eurotan)
a)	
b)	
c)	
d)	
e)	
f)	
g)	
h)	
i)	
j)	
Guztira	

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Entitatea: _____

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1.- (BAI/EZ, adierazi dagokiona)

Helburu bererako beste dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak eskatu dizkio beste administrazio edo erakunde publiko nahiz pribaturen bati.

BAIETZ erantzunez gero, eskaeraren edo emakidaren kopia erantsi behar da.

2.- (BAI/EZ, adierazi dagokiona)

Helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak lortu ditu beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batetik.

3.- (BAI/EZ, adierazi dagokiona)

Entitatea ez dago kondenatuta, epai irmo batez, laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzera, hauetako delituren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

4.- Ez du eskatu borondatezko konkurtsoa deklaratzeko eta ez da kaudimengabe deklaratu izan inolako prozeduratan, ez da konkurtsoan deklaratu, ez da esku-hartze judizialaren pean, ez eta gaitasungabetua ere Konkurtsoaren uztailaren 9ko 22/2003 Legearen arabera.

5.- Ez du bide eman, administrazioarekin egindako kontraturen bat irmoki suntsiaraz dadin, kausaren batean errudun deklaratu egoteagatik.

6. - Administrazioaileak edo legezko ordezkariak dutenak ez daude lege hauek jasotako bateraezintasun-araubidearen kasuetako batean: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea eta Kargu publikodunen jokabide kodea eta haien interes gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea. Edo ez dira Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapenezko karguak, lege horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

7.- Ez du zerga-egoitza erregelamenduz zerga-paradisu gisa kalifikatutako herrialde edo lurralde batean.

8.- Egunean ditu dirulaguntzak itzultzeko betebeharren ordainketa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

9.- Ez da epai irmo bidez zehatua izan, zeinak eragotziko baitzion dirulaguntzak eskuratzea, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearekin bat.

10.- Ez du jarduten armen ekoizpenean, merkaturatzean eta finantzaketan.

11.- Ez da zigor- edo administrazio-bidean zehatua izan sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik.

12.- Ez da zehatua izan Ekonomia Zirkular Baterako Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean xedatutako arau-hauste astun edo oso astunengatik.

13.- Bete du desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den kuota edo, halakorik ezean, egiaztatu du hori bete dadin neurri alternatiboak abian jarri izana.

14.–□ Ez dago laguntzak berreskuratzeko bete gabeko aginduren pean Europako Batzordearen alde aurreko erabaki baten ondorioz, laguntza hori legez kontraktatzat edo barne-merkatuarekiko bateraezintzat deklaratu ondoren.

15.–□ Ez dago lege honek 82. artikuluan aipatutako egoeretako batean ere: 4/2023 Legea, otsailaren 28koa, Transexualen berdintasun benetako eta eragingarrirakoa eta LGTBI kolektiboetako kideen eskubideak bermatzekoa.

16.–□ Jarduera ez gainfinantzatzeko konpromisoa hartzen du, dirulaguntza jasoz gero.

17.–□ Onuradun izateko baldintza guztiak betetzen ditu.

18.– □ Konpromisoa hartzen du Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Sailaren Ikerketa Zuzendaritzari jakinarazteko dirulaguntza emateko eskatu eta kontuan hartzen den baldintzaren bati eragiten dioten egoeretan izandako edozein aldaketa, bai eta edozein administrazioren edo erakunde publiko zein pribaturen eskutik helburu bererako dirulaguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo bestelako baliabideak jaso izanaren berri emateko ere.

19.– □ Egiazkoak dira eskabide honetan agertzen diren datuak; hala ez bada, bere gain hartuko du datuen zehaztasun ezak dakarren erantzukizuna.

BERARIAZKOAK

A).- BERDINTASUNARI DAGOZKIONAK – 50 langile baino gehiagoko entitateak

1.– □ Estatuaren araudiarekin bat datorren berdintasun-plana du indarrean.

2.– □ Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri ditu, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko Estatuko legerian ezarritakoaren arabera.

B).- HAIEN JARDUERA ENPRESAREN EREMUAN GARATZEN DUTEN ENPRESA, ELKARTE EDO FUNDAZIOEI DAGOZKIONAK

1.– □ Konpromisoa hartzen du Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikuluan aurreikusitako enpresen deslokalizaziorik ez egiteko.

Baimena ematen du/Ez du baimena ematen (azpimarratu aukeratzen duzuna)

Organo kudeatzaileak zuzenean egiazta dezan, egunean dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan xedatutakoaren arabera (Agindua, 2023ko otsailaren 13koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).

Baimena eman EZEAN, aldeko ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, dagozkion zerga-organo eskudunak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak emandakoak.

Entitatearen legezko ordezkaria. Sinadura.

NAN

Abizenak, izena

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta tratamendu-jarduera honetan sartuko dira: *Laguntzak eta dirulaguntzak (ikerketa sustatzekoak)*.

Arduraduna: Ikerketa Zuzendaritza, Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntza Saila.

Helburua: Ikerketa finantzatzea eta bultzatzea.

Legitimazioa:

– Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoak egikaritzean egin behar den eginkizun bat betetzeko.

– 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa.

– 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.

– 3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

Hartzaileak:

– Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk

– Ekonomia eta Ogasun Saila. Patente eta Marken Espainiako Bulegoa.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/054300-cap2-eu.shtml 

Araudia:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES)

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf)